

TELEBISTA ETA EUSKARAREN NORMALTZEA

Joan Mari TORREALDAI
Soziologoa, Jakin aldizkariko
zuzendaria.

(Lerro hauek txosten luzeago baten laburpen eta gidoi bezala ulertu behar dira)

0.-**SARRERA**

Sarreratxo honetan «telebista-euskera» bikoteari hurbiltzapen bikoitz bat eginen diogu: telebistak Euskal Herrian izan duen historia eta duen egoera azaldu batetik, eta bestetik, euskarak komunikabide moderno honetan duen zeregina azpimarratu.

0.1- *Telebista Euskal Herrian*

Telebista espainolak zein frantsesak ez du euskara sekula haintzat hartu. Euskal Telebista edo ETB martxan jarri arte euskarak ez du telebista duintasuneko presentziarik izan.

Egia da saiotoxo bat edo beste izan dela han eta hemen. Horien artean aipatu behar ditugu «Euskalerrria» programa hura, gerotzik J.M. Iriondok Telenorten egin zituen programak eta FR.3 frantsesak duela bost urte hasi zituen emanalditxoak.

Apenas aldatu da egoera gaurregun, ETB salbu. Kate espainolek eta frantsesek politika berdín eta berari eusten diote.

0.2.- *Euskarak telebista behar du*

Telebistak --telebistak bakarrik-- ez du euskara salbatuko, baina telebistarik gabe ez da euskararik salbatuko. Soziolinguistikaren oinarri-oinarriko ekarpe, tzat har dezakegu hau. Euskararen egituratze-prozesuan behar beharrezkoa da TB. Euskararen erabilpenaren eta gizarte-presentziaren testuinguru zabalago batetan sartzen da telebista. Mass-mediarik gabe, eta bereziki telebistarik gabe, euskara ez da hizkuntza osoa, heldua, ez modernoa. Euskararen arragoa da euskal telebista.

1.-ETB: EUSKAL TELEBISTA

Euskal telebista eratzeko saio bat bezala hartzen dugu hemen ETB, bere akats, muga eta guzti. Projektu honen ildo nagusiak eta egitasmo honen esangura garrantzizkoenak aipatuko ditugu, espreski aparte utzirik hainbat eta hainbat arazo.

Ikus ditzagun orain proiektu honen gorabeherak eta nondiknorakoa.

1.1.- ETB laugarren kanala da

1983ko lehen orduarekin batera sotu zen telebista berria. Euskal telebista bezala jaino ere. Euskalduna, hizkuntzaren aldetik, eta euskalduna jabegoaren aldetik.

1982an erabakitzen du Eusko Jaurlaritzak TVErekin haustea. Ordurarteko harreman guztiek porrot egin zuten. Labaienena hitzetan Madrilek ez zuen hitza bete, Madrilek minikate bat eskaintzen zuen, eta Madrilek ez du euskara sendotu nahi. TVEren sarea alde batera utzi eta telebista propio bat eraikitzea du Eusko Jaurlaritzak.

1.2.- Legeak eta auziak

Bi telebisten arteko harremanak ez direla samurrak, hori edozeinek daki.

Zertan da auzia? Ez gara hemen luzatuko. Esan dezagun bakarrik Eusko Jaurlaritzak Autonomi Estatutuaren 19. artikuluan eta 6. agindu iraunkorrean oinarritzen duela laugarren programa hau egiteko eskubidea. Eta beste muturrean, TVEk «legez kanpowotzat» duela ETB, Estatuari dagozkiola-eta bai «competencia exclusiva» delakoa, bai titulartasuna eta bai frekuentzien banaketa.

1.3.- ETB eta hizkuntzaren aukera

1.3.1.- Eusko Jaurlaritzaren projektua

Labaien jaunak hitzez-hitz hau esan zuen: «El Gobierno desea crear una televisión que no solamente sea vasca sino euskaldun». Borondate politiko irmo honekin abiatu zen projektua. Bestelako deklarazioak (Zubiaur, Areizaga, etc) eta geroko telebistako praxiak berak besterik erakusten dutela ere esan daiteke. Jatorrizko asmo hartatik oraingo praxira desbideraketarik dagoen edo hori zenbaterainokoa den aztertzen ez gara orain hasiko.

Euskararen aldeko hautapen hau egitean, bi arrazoi-mota aipatu dituzte agintariek:

.bata, informazio-ekologia orekatzea, alegia, erdaraz badela aski lehen ere, eta horregatik euskarari heldu behar diola Eusko Jaurlaritzak.

.eta bestea, ETBren helburua bera, aurrerago luze arakatuko duguna: euskararen promozioa.

1.3.2.- Oposizioan jarrera kontrajarriak

Konstatazio batetik abia gaitzeko: ETBren inguruko eztaf aidarik ugariek eta bizienez euskara izan dute ardatz eta gai nagusi. Ez dute pisu bera izan informazio-guduaren inguruko arazoek.

Gobernu eta ETB beraren kanpoko jendearen artean euskal telebistako hizkuntzaz bi bloke argi eta garbi definituak aurki genitzake. Batean, euskaltzaleak. Eta erdaltzaleak bestean. Labur esanda, euskaltzaleek ETB euskara hutsez nahi dute. Erdaltzaleeu, aldiz, gutxienez elebitasuna eskatzen dute, eta ez dute noski oraingo formula onartzen.

Jarrera bakoitzaren argumentuak hurbilagotik ezagutzeko, alde batetik, EHEren produkzioa eta, beste aldetik, Restituto Zorrillaren lanak aztertuko ditugu.

2.- TELEBISTAREN FUNTZIOAK ETA EUSKARA

2.1.- *Telebistaren funtzioak*

«Euskal Irrati Telebista» Herri Erakundea sortzeko Legearen atarikoan funtzio eta helburu hauek aitortzen zaizkie irratitari eta telebistari:

.informazioa

.herritarren eskuhartze politikoa

.hezkuntz sistemaren tresna

.euskal kulturaren laguntzaile

.euskararen laguntza eta aurrerabidea

Argi denez, eginkizun hauen zerrendan ez dago hautapen linguistikorik. Funtzio hauek, izan ere, berdin balio dute Donostiako Euskadi Irratiarentzat eta Bilboko Euskal Irratiarentzat, oraingo ETBrentzat eta datorkeen TB3 horrentzat. Badirudi, hori bai, igorpen-medio desberdina izan gwdutela beti euskarak eta erdarak. Baina esan bezala, ez «legez» baizik eta erabaki politiko.

ETB euskaraz izango dela erabaki da, bai, baina zein eginkizunetarako? Goian aipatu funtzio horiek denak betetzeko, ala eginkizun berezi eta espezi-fiko batzutarako gordeko da?

2.2.- *Telebista euskararen funtzioan?*

Aurreko galderak hemen du zentzua: Komunikabide bat euskararekin lotzean, zabaldua bait dago komunikabide hori euskararen menpe eta zerbitzuan ikusteko joera. Euskal telebista zertarako? Ba, euskara zabaltzeko, alfabetatzeko, euskalduntzeko; euskararen erreprodukzioarako, alegia. Eta ez, kasu honetan, euskal telebista ez da izan «ETB-euskaltegi», «ETB-ikastola», praxiak frogatu duenez.

Nola ulertu behar dira, orduan, zenbait kudeatzaile eta arduradunen eritziak eta deklarazioak? Hona ETBz zenbait eritzi:

- . Medio de cooperación para el fomento y desarrollo del euskara (A. Areizaga, L. Iriondo)
- . instrumento de recuperación idiomática (L. Iriondo).
- . factor de euskaldunización (J. Zubiaur).
- . plataforma para la lengua vasca (L. Iriondo).
- . utilización y potenciación en el desarrollo del euskara (L. Iriondo).
- . etc.

Eritzi hauetako asko ETB martxan jarri eta geroakoak dira. Testuinguruak diosku, ba, zein zentzutan ulertu behar diren. Dakigunez bederen, inolaz ere ez Raul Guerra Garridok egiten duen bipolaraketaren zentzuan: «Aún está por definir qué filosofía tendrá la ETB. Si su misión primordial va a consistir en la enseñanza del idioma, el euskera, o si va a responder a la naturaleza propia de lo que tiene que ser un medio de estas características...»

Hautabeharra ez da sekula izan informazioaren eta euskararen artean, euskararen eta kulturaren artean, euskararen eta aisiaren artean. Euskararen promozioa, hemen, ez da euskararen irakaskuntza, erabilpena baizik.

2.3.- *Euskararen funtzio pragmatikoa*

Nere ustetan ETBren «handitasuna» honetantxe dago, hots, telebista konbentzional, arrunt bat izatean. Euskaraz, hori bai.

Aipa ditzagun euskararen erabilpen posible batzu:

1.- Euskal telebista euskararen erreprodukzioarako erreminta bezala erabiltea, hau da, euskara irakasteko-ikasteko. «ETB-euskaltegi».

2.- Euskal telebista hezkuntz sistemaren tresna gisa ulertzea, eskolcrako, edukaziorako. «ETB-ikastola».

3.- Euskal telebistan zenbait eginkizun bazterreko, marginaletarako, -ez-modernotarako erreserbatzea euskara; eman dezagun, euskal kulturarako, folklorerako, euskal gaietarako, herri kiroletarako.

4.- Euskal telebistan euskara hizkuntza arrunta bezala erabiltzea, bai informazioan, bai kulturaren eta bai gainerako eginkizunetan. Komunikazio-hizkuntza modernotzat hartzea euskara, Frantziako telebistetan frantsesa eta espainoletan espainola bezala, eta kitto.

Laugarren bidetik jo du ETBk. Bide honen egokitasuna azpimarratzeko erants dezagun beste hau: biziki inportantea dela ETB euskaraz izatea, noski, baina ez dela garrantzi gutxiagokoa ETBn eginkizun funtzional modernu hau aitortzea euskarari.

Euskararen gaurko desafioa baxe da: bere funtzio pragmatikoa. Funtzionatuz erakusten-frogatzen du euskarak funtzionala dela, baliagarria eta bizia dela.

3.- ETB: EUSKARAREN NORMELTZE-TRESNA

3.1.- Euskararen funtzionaltasuna auzitan

Euskarak ere, edozein hizkuntzaren antzera, bi gizarte-funtzio nagusi ditu: komunikazioarena eta identifikatzearena. Batez ere pragmatikoa bata, eta sinbolikoa bestea.

Etsai eta adiskide, ahobatez aitortzen diote balio sinbolikoa euskarari: «símbolo de la nación vasca», «el símbolo de la identidad por excelencia», «el signo más visible del pueblo vasco».

Gutxiagok aitortzen dio funtzio pragmatikoa. Espreski ukatu ere bai ez gutxik. Azken urteotako «kultur erasoaldiak» bide hau hartu du.

Euskararen kanpokaldetik emandako eritzi hauen bestaldeko muturrean aurkitzen da azken 30 urteotako euskalgintza eta kulturgintza. Hedadura praktikoa, bere funtzionaltasuna, komunikazio-erremintaren balioa eman nahi zaio euskarari. ETB bera, ikuspuntu honetatik eta testuinguru soziologiko-ideologiko honetan, biziki urrats inportantea da, hain zuzen euskararen funtzionaltasuna, baliagarritasuna eta modernutasuna adierazteko

3.2.- *Euskararen funtzio pragmatikoa sinbolizatzen du ETBk*

Euskarazko telebista batek, euskarak balio duela, gai dela, hizkuntza objetiboa eta efektiboa dela, mezuen komunikatzaile dela esan nahi du besterik gabe.

Euskal telebista ere 1956-1964 inguruan sortu eta geroztik indartuz joan den korrante soziolinguistiko zabal eta handi horretan kokatu behar dugu. Hor sartzan da gerraosteko belaunaldien ahalegin linguistiko-kultural osoa: ikastola, alfabetatze-euskalduntzea, euskal kanta berria, euskararen batasuna, euskararen normalizazioa. Esfortzu horren ideia nagusiak hauek izan dira: erregistro guztiez euskara hornitzea, afektiboak eta efektiboak, subjektiboak eta objetiboak; ama-hizkuntzari, hizkuntza poetikoari, mistikoari, nazionalari, etnikoari aitortzen zaizkion «bertuteak» gaindituz, euskararen praktikotasuna, funtzionaltasuna, erreminta-balioa bideratzea eta errebindikatzea.

3.3.- *Euskararen funtzio modernua sinbolizatzen du ETBk*

Euskarak telebistan zera adierazten du: gaurkoa, kultura, modernua dela. «The medium is the message». ETB, euskal telebista den neurrian, euskararen «thornuya, ohoria eta gradoa» da, B. Etxeparek esango lukeen bezala. Modernotasunaren jitea telebistak eransten dio euskarari: telebista da, izan ere, masa-komunikabideetan teknologikoki aurreratua.

3.4.- *— Heuskara ialgi adi kanpora —*

Aztertzailea harrizterainoko ornarpen soziala, eta inoiz euforia, sortzen du euskal telebistak eukaltzaleen artean. Nola esplikatzen hori? Testuinguru soziolinguistiko aipatu berriak nahiko esplikatzen duelakoan gaude gu. Horrexek berak esplikatzen du zenbaiten euforia ere.

Beste euforia bat gogora ekar genezake, aspaldikoa izanarren honekin zer ikusi handiena duena. 1545ean «Lingua Vasconum Primitiae» liburuak «thornuya, ohoria, gradoa eta estima» ematen zion euskarari, egilearen ustetan. Euskal lehen liburu honek euskaraz idatzi ere egin daitekeela frogatu zuen. Gutenberg Galaxian sartu zuen euskara. Ehun urte lehenago sorturiko teknika berriaz da euskara «basati», «zahar», «arrote» hori.

Orain, telebistarekin, gauza bera: teknika berriaz baliatzen da euskara. Eta orain Marconi Galaxian ate handitik sartzan da.

GERORA BEGIRA

Euskararen norz altze-prozesuan ETBren sorrera garrantzizko urratsa da, zalantzarik gabe. Baina lehen urrats apala besterik ez, telebistak euskararen normaltzean izan beharko lukeen eginkizunaren ondoan. Nork jakin gerora gauzak nola joango diren...

Etorkizunaren korapilo hori nolabait askatzeko, zenbait datu aipa dezagun:

- . aidean dauden arazoaren artean: telebista pribatua, telebista autonomikoa.
- . esijitu beharrezkoen artean: erdal telebisten euskararekiko politika.
- . argitu beharrezkoen artean: ETBren lege-arazoa, hizkuntza, igorpen-eremua, produkzio propioa, programaketaren kultur politika.
- . etab.